

## EDITORIALA

### Bide ezberdinak

Etengabe jarraitu behar du langile klasearen borroka baldin eta eraginkorra izan nahi badu. Ez dago ez astirik, ez abagunerik, atsendenik hartzeko. Bai hazkunde garaian eta baita krisialdikoetan ere, agente ekonomiko eta patronalak beren errezetak azaleratzen saiatzen dira, beti modu itxurosoan, langileen aurkako neurri erasokorrenak ezkutatuaz. Lehiakortasuna, produktibitatea, kontratuen arteko bereizkeria ezabatzea, mugikortasuna, malgutasuna... patronalek ondo maneiatu-ko hitzak eta kontzeptuak dira guztiak. Eta hitzak eta kontzeptuen atzetik klase indartsu baten interesak ageri dira nonahitik.

Beren interes gertukoak bakarrik ditu begiko patronalak. Etekinak nondik handitu daitezken bila dabil, axola gutxi zaiolarik milioika pertsona langabezia uzten baditu ere. Alderantziz, lan bila ibil daiteken langile kopurua gero eta handiagoa izanik, are eta errazago izango du bere irudiko lan merkatuan beharpenak topatzea. Bitartean, gobernuak, bere funtzio sozialari uko eginez, ibilbide eroso leuntzen diote patronalari lan merkatua nahi duen eran goberna dezan. Uko egin diote, aspalditik, gizartearen beharrezko orka bilatzeari, behar handienak dutenei zerbitzu publikoak eskaintzeari eta ondoen daudenei aurrez aurreko politikak egiteari. Hainbesteko inkestak, azterketa eta mass-mediak eginitxo txostenek ez dute konponduko politikarekiko eta agintariekiko dagoen gaitzesetasuna, harik eta norabidea zuzentzen ez den bitartean.

Bestalde, jarrera erasokor honi aurre egin beharrean etsipenera daraman eredu sindikal bezatuaren aurrean topatzen gara, patronal eta gobernuen morroi eraginkorra bilakatu delarik. Berezkoa beharko lukeen jarduna baztertu dute eta geroz eta urrutiago ikusten dute langilegoaren interesen defentsa. Aukera egin dute instituzioen aitorkuntza lortze aldetik, eta bazterrean utzi dute bere jendearen defentsa.

Ez da gure eredia, zorionez. Zailtasunez eta gogorrean bestelako bidea hartzeko erabakia aspaldi hartu genuen, gure jendearen aldeko erabakia. Zorionez.

**Milaka lagunek hartu zuten parte ELAk Maiatzaren Lehenean antolatutako ekitaldietan; festa eta aldarrikapena izan ziren nagusi**

# ERASOAK GELDIARAZTEKO MODU BAKARRA, SINDIKATUA

Euskal langileria ez dago prest gure eskubideen aurkako erasoak onartzeko. Maiatzaren Lehenean hori frogatzen duen beste erakustaldi bat ikusi genuen Bilboko kaleetan. ELAren deialdiari erantzunez, jendetza bildu zen *Patronal, banca y gobiernos: chantaje y saqueo. Inoiz baina gehiago sindikatu langileekin* zioen pankartaren atzean.

Eguraldia lagun izan ez arren, zenbait unetan euria gogotik egin zuen, milaka eta milaka izan ziren ELAren deialdiari babesa adierazi zioten langileak. Eskuinaren interesak defendatzen dituzten horiek, Gobernuak, banka eta patronala, besteak beste, bat eginda daude euren interesen aldeko borrokan. Horrek ondorio larriak ditu langile klasearentzat, euren helburua bete asmoz eskubide sozialak eta laboralak suntsitzen dituztelako. Hain zuzen ere, hamarkada luzeetan eta langileon grinari eta ahaleginari esker lortutako eskubideak.

Hori izan zen Maiatzaren Leheneko ekitaldiei hasiera emateko ELAko idazkari nagusi Adolfo Muñozek, Txikik, hartu zuen ideia. Goizeko 11:30etan Jesusen Bihotzaren parean egindako hitzaldian langileok bat egitearen beharraz eta horretarako sindikatuak duen ezinbesteko garrantziaz mintzatu zen. "Gure jendeak defenditzeko sindikatu indartsu bat behar du. Antolatzen eta elkartasunean inbertitu beharra dago. Inbertitu, nortasun kolektiboan. Kontrabotere gisa jarduteak, eskuineko politika hauei aurre egiteak, botere politikoren eta ekonomikoaren dotrina arbuiatzeak, horrek guztiak betebeharrak ezartzen digu: antolakuntza sindikala sendotzea. Eraso geldiarazteko modu bakarra indar sindikala da".

### EGIA JAKITEKO ESKUBIDEA

Argi eta garbi mintzatzeari beharraz aritu zen Txiki bere hitzaldian. Gauzei dagokien izenez deitu behar zaie, langileok zer gertatzen ari den jakiteko eskubidea dugulako. Errealitatea mozorrotu gabe. "Krisiaren ardura dutenak agintean daude oraindik. Finantza-botereak eta patronalak agintzen dute. Elkartasun politikak behar dira une honetan, baina gobernuak baztertu egiten dituzte politika horiek, eta gainera erabakiak krisiaren ardura



dutenean alde hartzen dituzte. Zapaterok *Financial Times* egunkarian esan du botere ekonomikoak eskatzen diona egingo duela. Hau esan du, hitzez hitz: 'Murrizketa sozialak kosta hala kosta egingo ditugu'. Sozialdemokrataren mozorroa du, baina betiko eskuina da. Eta murrizketak ezartzeko Zapaterok, estatu-ituna medio, Iruña eta Gasteizko gobernuak tirak egiten die. Hori bai, denek bake soziala nahi dute, gainera".

Hitzaldiaren ostean manifestazioa egin zen, Plaza Biribilerako. Pankarta nagusiaren atzetik, gaur egun lan gatazka gogorak bizitzen ari diren enpresetako eta sektoreetako ordezkariek. Kasu guztietan duintasun erakustaldi apartak eskaintzen ari diren ELAko militanteak, enpresariari ezetz esatea eta euren eskubideen alde borrokatzea erabaki duten lagunak. Ondoren, azken urteetako ereduari jarraituz, eskualde ezberdinetako ordezkariek. Norbera bere pankarta, lelo eta oihuekin, Langileen Egunean festa eta aldarrikapena uztartuz.

### ALDARRIKAPENA ETA FESTA

Manifestazioaren ostean, komunikazio arduradun Patxi Agirrezabalak eskerak eman zizkien ELAren izenean Bilbora hurbildu ziren milaka lagunei. Ekitaldiari amaiera emateko, ohi bezala, Internazionala eta Eusko Gudariak kantatu ziren.

Maiatzaren Leheneko ekitaldiak ez ziren hor amaitu. Bilboko ekitaldiaren

ostean festa Barakaldoko BEC erakustazokara lekualdatu zen. Ongi-etorri agurraren ostean ELAko 4.500 lagun bildu ziren bazkaltzeko. Tripa ondo beteta, haur eta helduek primeran pasatzeko aukera izan zuten. Umeentzako jolasparkea, musika zuzenean, eskualde ezberdinetako lagunek antolatutako lehiaketak... Ez zen aspertzeko betarik egon!



Miles de trabajadores/as participaron en los actos convocados por ELA para el Primero de Mayo. Gobiernos, banca y patronal continúan con su ofensiva a favor del capital y en contra de los derechos de la clase trabajadora, recortando los derechos logrados en décadas de lucha y reivindicación. Por ello, en estos momentos es más importante, si cabe, el sindicato. Así lo entendieron las miles de personas que tanto en la manifestación como en la posterior fiesta del BEC secundaron el Primero de Mayo organizado por ELA. ESKERRIK ASKO DENORI!



**Resumen de la intervención del secretario general, Adolfo Muñoz, Txiki, en un Primero de Mayo multitudinario y eminentemente reivindicativo**

# "NUESTRA GENTE NECESITA UN SINDICATO FUERTE PARA DEFENDERSE"



Como no podía ser de otra manera, con la que está cayendo para la clase trabajadora, el discurso de Adolfo Muñoz el 1º de Mayo fue eminentemente reivindicativo y movilizador. "La situación es complicada. La gente necesita, más que nunca, un sindicato fuerte para defenderse. Hay que invertir en organización y en solidaridad". La conclusión es clara: "sólo vamos a ser capaces de frenarles allí donde exista fuerza sindical", afirmó Txiki.

El secretario general de ELA dijo, también, que el sindicalismo no debe dar ninguna cobertura a estas políticas y a estos gobiernos. "Al contrario, vamos a deslegitimarlas y luchar para que cambien. Vamos a luchar por un reparto más justo de la riqueza, por otras políticas públicas más sociales y por una negociación colectiva que coloque el empleo digno con derechos como elemento central". A pesar de lo complicado del reto, se mostró convencido, sin embargo, de que "si aprovechamos las oportunidades es una gran ocasión para el sindicalismo reivindicativo", al tiempo que adelantó que "desde la honestidad del sindicalismo de siempre y en honor a los que lucharon por lo que ahora nos quieren quitar, hay que seguir peleando. Como dice el cartel del 1º de Mayo de este año: Más que nunca, sindicato".

En otro momento, Txiki afirmó que "existe un pacto de estado para aplicar los ajustes, en el que están, también, los gobiernos de Iruña y Gasteiz". Otra característica de la actual coyuntura es que todos quieren hacerlo sin contestación social y, para ello, -denunció Txiki- "tienen que hacer invisibles las alternativas a sus políticas y a quienes las planteamos. Con debate y participación social no

podrían hacer todo lo que quieren. Es el caso de los gobiernos de Gasteiz e Iruña, que expulsan o usurpan nuestra representación sindical. Sólo hablan con los amigos, sólo hablan con los que están de acuerdo con ellos, sólo hablan con quienes viven del presupuesto público. Y lo único que discuten es el grado de ajuste. Si es mucho o debe ser más".

## LUCHAR POR OTRAS POLÍTICAS PÚBLICAS Y SOCIALES

Entrando a analizar la crisis actual, Muñoz afirmó que se pretende aprovechar para atacar los derechos sociales y laborales y para seguir privatizando lo poco que queda de lo público, al tiempo que criticó que no se ha tomado ninguna medida para disciplinar la locura del poder financiero. "Por el contrario -denunció Muñoz- hay movimientos en el sector financiero encaminados a una mayor concentración de capital".

En otro momento, el secretario general de ELA acusó a los gobiernos de mentir. "Usan el déficit y deuda para justificar recortes en derechos sociales y laborales cuando ni el gasto social ni las condiciones de trabajo tienen culpa alguna en lo que ha sucedido. La crisis es consecuencia de políticas y políticos irresponsables", recordó.

Txiki insistió en que otras políticas son posibles y exigió a la clase política que "suban la presión fiscal, echen atrás todas las reformas que hicieron para beneficiar a las rentas altas y de capital y persigan el fraude fiscal. Pongan el Concierto y el Convenio al servicio de la solidaridad. Antes de tocar un solo derecho social, hagan eso. Exigimos que hagan esa política".

## LA CLASE TRABAJADORA NO DEBE PAGAR LA CRISIS

Las reformas en ciernes ocuparon una parte importante de la intervención del secretario general. Más en concreto, sobre la reforma laboral dijo que es una invitación a la patronal a sustituir empleo digno por precario. "La reforma laboral es más precariedad, no crea un solo empleo sino que aumenta los beneficios de la patronal".

Sobre la reforma de las pensiones, afirmó que pone muy difícil el acceso a la jubilación a mucha gente y reduce por diversas vías la cuantía de la prestación, así como que se trata de una reforma a medida de la Banca.

Para finalizar con el capítulo de reformas, Muñoz alertó sobre la reforma de la negociación colectiva, fruto del diálogo social de Madrid y que se está llevando con el máximo secreto. Afirmó que, además de imponer precariedad vía ley, quieren dificultar que por medio de la negociación colectiva la clase trabajadora pueda dar la vuelta a esas situaciones. "La centralización de la negociación colectiva supone un empobrecimiento de las condiciones de trabajo. A la patronal le interesa llevar los ámbitos de negociación al terreno en que el sindicalismo es más débil".

En ese sentido, Muñoz afirmó que ningún partido de ámbito vasco debe colaborar en que se elimine la capacidad de decidir dónde negociar. "Queremos negociar aquí y que se respeten las mayorías vascas". "El Estado -añadió- está culminando una fase involutiva que niega cualquier ámbito de decisión en el ámbito vasco. Las fuerzas políticas vascas no pueden, bajo pretexto de la crisis, acompañar al Estado para que consolide ese modelo", advirtió, para denunciar a continuación que tanto el gobierno de Madrid como el de Gasteiz "trabajan para negar cualquier eficacia a las mayorías vascas".

## DEFENDER LA NEGOCIACION COLECTIVA Y LOS CONVENIOS

Tras afirmar que en la coyuntura actual habrá negociación donde exis-

ta fuerza sindical y que sin sindicalización no hay negociación colectiva, el secretario general de ELA tuvo un recuerdo muy especial para las empresas en conflicto, y lanzó un mensaje de ánimo a las trabajadoras de Aldakonea, Ariznavarra, ITV, comedores escolares, telemarketing, Timkem, Metal de Gipuzkoa, Gamesa de Alsasua, Prodemas, Ambulancias, incineradora Zabalgardi, limpieza viaria de Tudela, cafeterías de Osakidetza, centro de día Nafarroa, residencias de Gipuzkoa y Bizkaia, entre otras.

Siguiendo con el capítulo de negociación colectiva, Txiki recordó que en época de bonanza los empresarios del estado español son los que más han ganado, los que menos han invertido en economía real y los que más han especulado, y que en época de crisis pretende sacar provecho de la misma acabando con la negociación colectiva. Txiki auguró, en consecuencia, que "sin duda va a haber conflictividad. Vamos a defender los convenios, vamos a luchar...".

## FUENTE DE FINANCIACIÓN Y UNIFORMIZACIÓN

En otro momento de su discurso, el secretario general de ELA se refirió al diálogo social como instrumento político. "En Navarra, algún día se escribirá la conexión y trama de intereses económico entre Gobierno navarro, patronal y algunos sindicatos. Ojala lo veamos pronto". En relación al gobierno de Gasteiz afirmó que "han hecho del desprecio a la mayoría sindical una seña de identidad. Si hace falta mentir, mienten. Esa es la política del gobierno de Gasteiz".

Según Txiki, el objetivo del diálogo social de la CAPV es llevar adelante su modelo sindical, social y político, acompañar los ajustes, poner los órganos de participación a su servicio y uniformizar el estado en políticas sociales y laborales. "En Madrid, en Iruña y en Gasteiz piensan igual. Todo con el apoyo de la patronal, y CC.OO y UGT". Y como respetando las reglas democráticas no pueden hacerlo "usurpan nuestra representación. Nos quitan lo que nos han dado los y las trabajadores vascos", denunció.

**Ez dute eztabaidarik nahi; eztabaidarik ez da egiten. Gizartean eztabaida eta parte hartzea posible balira, ezingo lukete egin nahi duten guztia. Demokrazia husten ari dira, boikota egiten diote, botere politikoa botere ekonomikoarentzat ari baita lanean.**

**José Luis Vidal, responsable del metal de Gipuzkoa, anuncia movilizaciones para responder a la actitud de la patronal**

# “LA ACTITUD INTRANSIGENTE DE ADEGI BLOQUEA LAS NEGOCIACIONES”



**J**osé Luis Vidal considera imprescindible movilizarse en defensa del convenio del metal de Gipuzkoa. “Las negociaciones del convenio están bloqueadas por la actitud intransigente de ADEGI. La patronal gipuzkoana genera alarmismo, azuca el fantasma del miedo al desempleo y difunde hasta la saciedad todo tipo de falsedades. De este modo pretenden imponer recortes gravísimos en los derechos y las condiciones de trabajo de los y las metalúrgicos gipuzkoanos. Es decir, los empresarios, con una actitud verdaderamente despreciable, pretenden aprovechar el viaje de la crisis para introducir cambios estructurales y precarizar cuanto más mejor nuestras condiciones”.

**-¿Cómo se encuentran las negociaciones del convenio del metal de Gipuzkoa?**

-Actualmente están bloqueadas, debido única y exclusivamente a la actitud totalitaria e intransigente de ADEGI. Pretenden aprovechar la incertidumbre y el miedo derivados de una situación de crisis económica

para dinamitar el modelo de negociación colectiva en Gipuzkoa.

**-ADEGI, sin embargo, dice que ellos sí tienen voluntad negociadora...**

-Eso dicen, pero es una enorme mentira. Sus propuestas son una declaración de guerra. ADEGI apuesta abiertamente por la confrontación y por el NO al convenio del metal.

Hablan de que los sindicatos no respetamos la legitimidad que tiene la parte empresarial para realizar las propuestas que estime convenientes. Por supuesto que los empresarios tienen legitimidad para hacer propuestas. Sin embargo, estas propuestas empresariales deben respetar las reglas del juego que hasta ahora empresarios y trabajadores/as hemos respetado en la negociación colectiva.

A saber, el punto de partida de toda negociación debe respetar los derechos adquiridos en convenios anteriores. Así pues, la legitimidad de ambas partes a la hora de realizar las propuestas que consideren oportunas no está en entredicho, siempre y cuando se respeten las reglas del juego en materia de negociación colectiva.

Somos los sindicatos, como representantes de los y las trabajadoras, los únicos que defendemos en la mesa negociadora el Sí al convenio del metal, el Sí a un convenio digno, un convenio de avance, sin recortes ni imposiciones empresariales.

**-Ahora, desde ELA y LAB se ha decidido dar un paso al frente y para ello se han convocado diferentes movilizaciones. ¿Por qué?**

-Al parecer, ADEGI se siente muy cómoda en esta confrontación que de momento no ha pasado del terreno mediático. Es por ello que los y las trabajadoras del metal de Gipuzkoa tenemos que movilizarnos y luchar por los derechos que tantos sacrificios nos ha costado conquistar.

El punto de partida para negociar debe ser el convenio del metal vigente. ¿Está dispuesta ADEGI a aceptar ese punto de partida? Hasta ahora no. ELA,

por supuesto, está dispuesta a negociar, pero de ninguna manera admitiremos recortes en los derechos de la gente trabajadora. Tenemos que conseguir que ADEGI se sienta a negociar un convenio digno, y para ello hay que movilizarse.

**-¿Qué movilizaciones se han convocado?**

-ELA y LAB hemos convocado 4 días de huelga: 28 de mayo y 4, 10 y 11 de junio. El objetivo está claro: hacer frente a la prepotencia patronal y defender los derechos de la gente trabajadora. Además de la convocatoria de huelga, hacemos un llamamiento a todos los metalúrgicos a participar en la manifestación que tendrá lugar el próximo día 14 de mayo en Donostia, a las 11:30, en defensa del convenio del metal.

Sin olvidar, por supuesto, que en las próximas semanas desde ELA y LAB realizaremos distintos actos en todas las comarcas de Gipuzkoa para socializar la grave situación en que se encuentra actualmente el convenio del metal.

**-Mencionas a ELA y LAB. ¿Qué pasa con los otros sindicatos con representación en la mesa?**

-Esta convocatoria de huelga es una convocatoria abierta. Ante este ataque patronal sin precedentes, la unidad sindical, para confrontar con los empresarios, es muy importante. Es por ello que deseáramos sinceramente que UGT y CCOO también se adhirieran a esta convocatoria de huelga.

Hasta ahora, aunque lo hemos intentado en varias reuniones, UGT y CCOO todavía no se han adherido a la convocatoria de huelga. Es más, sería del todo incomprensible que, ante la brutal ofensiva de ADEGI, UGT y CCOO no apoyaran los 4 días de huelga en defensa del convenio del metal.

**ELAk eta LABek lau egunetako greba deialdia egin dute Gipuzkoako metalean: maiatzak 28 eta ekainak 4, 10 eta 11**

## GURE OSASUNAREKIN NEGOZIOA EGITEAREN AURKA

**G**ure osasunarekin negoziario egiteari STOP lelopean ELAren ehunka ordezkari bildu ziren Iruñako –apirilaren 27an– eta Bilboko –apirilaren 28an– kaleetan, lan osasun eta segurtasunarekin lotura duten politketan aldaketa sakonak eskatzeko.

Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko eguna zela-eta Bilbon egin zen manifestazioa Plaza Biribilean hasi zen, eta Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean amaitu. Bertan, lan osasun arduraduna, Leire Txakartegi, eta idazkari nagusia, Adolfo Muñoz, Txiki, mintzatu ziren.

Leire Txakartegik nabarmendu zue-

nez “aurtengo apirilaren 28an gutxi daukagu ospatzeko, eta asko salatzen. Egoerak bere horretan dirau. Lan osasunean daukagun egoera oso larri da Hego Euskal Herrian, ez dago inolako hobekuntzarik. 2009an 85 langile hil ziren bere lanpostuetan, lan istripuen ondorioz. 2010ean 20 dira jadanik. Eta hori krisi egoeran gaudela, eta lanean ari den langile kopurua txikiago dela”.

“Lan gaixotasunei dagokienez –gaineratu zuen–, ez dago daturik, ezkutu egiten baitira. Baina badakigu asko, asko eta asko direla lan gaixotasun baten ondorioz hiltzen direnak”.

### NAFARROAN ERE, EGOERA LATZA

Iruñako ekitaldia Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren egoitzaren aurrean hasi zen, eta Foru Jauregian amaitu. Bertan Mitxel Lakuntza mintzatu zen, ELAk Nafarroan duen arduraduna, eta Nafarroako Gobernuaren kezka nagusia betiere ugazaben pribilegioak defenditzea dela nabarmendu zuen, ez legea betearaztea edota lanpostu seguru eta osasungarriak bermatzea. “Egungo egoera gaitzetzeko borondate politikorik ez dauka. Gobernuaren eta patronalaren artean ez dago inongo gatazkarik, eta interesetan guztiz bat datoz”.



**Xabier Irastorza, ELAko irakaskuntza arduraduna**

# "HEZKUNTZAREN ERABILERA PARTIDISTEN AURKA"



**E**LAko irakaskuntza arduradun Xabi Irastorkak gogor kritikatu du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak berriki argitaratu duen Hezkuntza curriculum dekretu berria. Honi lotuta, hezkuntzari gogor eragiten dioten erabakiak eman ditu ezagutzera Jaurlaritzak. Esanguratsuenak hizkuntza eredu eta bereziki euskararen ingurukoak, Euskal Herria ulertzeko moduari dagozkionak eta biktima batzuk soilik ikasgeletan izateari buruzkoak.

**-Zein balorazio egiten duzu dekretuaren inguruan?**

-Erabateko desadostasuna eta kezka agertu nahi dugu Jaurlaritzaren jokabide eta erabaki hauen edukientzat. Lehenik eta behin, kasu hauetan guztietan Jaurlaritzaren prozedura salatu beharrean gaude. Herri honetan eta hezkuntzan gehiengo osatzen dugun sindikatuok eta beste hainbat eragilerekin ez du harremanik izan eta ez du inongo ahaleginik egin eragile ezberdinekin adostasuna bilatzeko. Erabaki hauek guztiak hezkuntza munduari ezarritako inposizio hutsak izan dira.

Edukiei dagokionez, kezka berezia agertzen dugu dekretu honekin eta Jaurlaritzak hartzen ari den erabakiek euskarak eta euskarazko irakaskuntzak sufrituko duen egoeraz, Euskal Herriaren errealitate historiko, kultural, sozia-

la eta herri izaera indargabetzeko asmoaz eta pairatzen dugun egoera politiko eta sufrimenduaren inguruan egin nahi den erabilera politikoaz. Gure ustez, neurri berri hauen guztien atzean PSE eta PPren arteko hitzarmenaren proiektu ideologikoa ezkutatu da.

**-Dekretuaren helburua hezkuntza "eduki ideologiko partidistatik" aldentzea dela dio Jaurlaritzak.**

-Hezkuntza *eduki ideologiko partidistatik* aldentzea euren proiektu ideologikoa zabaltzeko erabiltzen duten aitzakia hutsa da. Nafarroan, UPN eta PSN paktuaren ondorioz, antzeko asmo eta erabakiak badakigu zein ondorio izaten ari diren. Nafarroako ereduari jarraiki, Jaurlaritzak Euskal Herria, hizkuntza eta kultura eremu batzuetara mugatzen duenean, PSE eta PPK Euskal Autonomia Erkidegoan adosturiko gobernu programa uzten dute berriro ere agerian, Herri hau eta Espainia ulertzeko duten modua eta beraien proiektu ideologikoa inposatzeko asmoa.

Horretarako, gainera, herri honen gehiengoaren borondatea alde batera utzi eta mespretxatu dute, *pluraltasuna, kohesioa eta berdintasunaren* izean. Ezin dugu onartu gehiengoaren nahia alde batera uzten duen pluraltasun eta berdintasuna.

**-Dekretuak euskara eta euskarazko irakaskuntzarengan izan ditzakeen ondorioez kezka agertu duzu. Zergatik?**

-Herri honek eta hezkuntza sistemak duten oinarriko beharra ez dugu uste, Sailburuak berriki esan duen moduan, euskararen eta gaztelaniaren arteko berdintasun normatiboa denik, bi hizkuntzen eta bereziki euskararen ezagutza eta erabilera bermatuko duen hezkuntza baizik. Eta bide honetan, Jaurlaritzaren urratsak guztiz kontrako norabidean doaz.

Halako egoera diglosikoetan jarraitu beharreko irizpide pedagogiko eta psikolinguistikoei bizkar emanda, euskarari ez zaio ardatz izateko lehentasunezko izaerarik aitortzen. Hitzetan euskarara eta euskarazko irakaskuntzari nolabaiteko aitormen bat egiten bazaio ere, ekintzek guztiz kontrako diote, ez baitira konpromiso zehatzak hartzen derrigorrezko eskolaldia amaitzean ikasleek izan beharreko ezagutza mailaz.

**-Jaurlaritzak eskoletan terrorismoaren biktimen gaia lantzeko plana ezarri nahi du, aldebakarreko samina aintzat hartuz soilik.**

-Pairatzen dugun sufrimenduaren erabilera politiko partidista eskoletara zabaltzeko nahi da. Hori bizikidetzaren baina, liskarrerako eta manipulaziorako bidea irekitzea da. Ikuspegi partziala eta murrizta izateaz gain, xede politiko argia du, inolako helburu hezitzailerik gabe, eta zalantzan ipintzen du orain arte eskoletan irakasleek izan duten giza eskubideak eta bizikidetzaren lantzeko modua.

Komeni da argi esatea eta azpimarratzea Euskal Herriko eskoletan irakasleek jada lantzen dituztela giza eskubideak eta bizikidetzarako jarrerak.

Hau honela, gure ustez arlo honetan ikasgeletan bestelako lan bereziago bat egitea ezin daiteke hala nola harturiko erabakia izan, are gutxiago interes partikular batzuei begira. Gai honetan ezinbestekoak dira hausnarketa askoz zabalagoa eta egitasmo honetan inondik ere agertzen ez diren irizpide pedagogikoak.

Biktima guztiekiko -batzuekiko bakarrik, ez- elkartasuna lantzearen azken asmoa sufritzen ari den gizarte oso baten eta elkarbizitzaren adiskidetzaren berradiskidetzaren beharko luke, horretarako sufrimenduaren arrazoi eta iturriak gainditu eta guztion artean zauriak sendatzen saiatuz.

## ● Acuerdo en limpieza viaria de Tudela

Tras seis días de huelga, ELA alcanzó el 2 de mayo un acuerdo con Cespa, adjudicataria de la limpieza viaria de Tudela. El acuerdo contempla prácticamente el 100% de las reivindicaciones que los trabajadores/as demandaban. Con una vigencia de 3 años (2009-2010-2011), los salarios se incrementan en un 1,4% por encima del IPC durante este periodo y recoge el disfrute de 22 sábados al año y 3 días de asuntos propios, lo que sitúa la jornada anual en 35 horas semanales.

## ● Insuficiente oferta de la patronal de comedores escolares

ELA ha convocado asambleas en Bilbao, Donostia y Gasteiz los días 3 y 5 de mayo ante la falta de avances en la negociación del convenio de comedores escolares.

Para ELA la última propuesta de la patronal es insuficiente y no recoge las reivindicaciones planteadas por los sindicatos convocantes de la huelga, como son la equiparación con el personal de la administración, la jornada y la formación.

## ● 15.000 firmas de apoyo a la plantilla de Gamesa

La plantilla de Gamesa de Altsasu ha recibido un amplio respaldo de la ciudadanía. En dos semanas más de 15.000 personas han firmado el comunicado de apoyo y son muchas las muestras de solidaridad que han recibido los trabajadores y trabajadoras. La plantilla se ha mantenido concentrada día y noche frente al Gobierno de Navarra en la segunda quincena de abril.

Los 150 empleados/as de la planta de Gamesa luchan contra el cierre anunciado por la dirección hace varias semanas, tras la presentación de un ERE en Madrid.

El comité ha convocado diversas movilizaciones, al mismo tiempo que ha denunciado la falta de implicación del Gobierno de Sanz.

El comité recuerda que entre 2007 y 2009 la empresa tuvo 659,9 millones de euros de beneficios.

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)

**ELA**  **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)

Franqueo concertado  
nº 08/207